

HIKA ETA ZUKA-KO ADITZ-JOKO EDO KONJUGAZIOAZ

Gure hizkuntza ezagutzen duten guziek ba dakite: euskerak ba ditu mintza-molde edo tratamendu batzuk, errespetuaren arabera aukeratu beharrekoak: *berorika* deritzana (edo duketza); *zuka* eta *xuka* deritzatenak (edo zuketza); eta *hika* deritzana (edo ittano, yiketza, eta hika-ta-noka esan ohi duguna).

Hunat hemen, adierazgarri, esaeramoldeen sorta bikoitza:

Intransitibo: Zertara joan *da* berori? (Hegoaldean erabillia).
Zertara joan *zera* zu? (Euskal Herri guzian).
Zertara joan *xera* xu? (Iparraldean bakarrik).
Zertara joan *haiz* hi? (Euskal Herri guzian).
Zertara joan *haiz* hi? (Euskal Herri guzian).

Transitibo: Zer nahi *du* berorrek?
Zer nahi *duzu* zuk?
Zer nahi *duxu* xuk?
Zer nahi *duk* hik?
Zer nahi *dun* hik?

Zaharrenak, ez da dudarik, *hika*-ko formak dira (eta beren kide diran *zuka* *egiazkoak*). Eta horietzek ari dira gaur gehienik galtzen eta nahastutzen.

Eta hori bi ziorengatik:

1.—Kaletarrek okerrago dakite euskeraz aspaldi huntan, baserritarrek eta arrantzaleek baiño; kaletarrek aspaldi danik erderaz ere hitzegiten baitute usu, eta ez euskeraz soilki.

Hori dala-ta, hika-ko (eta zuka-ko) hizkera ahaztu egin da hirietan. Eta hortatik beste hau: hika-ko jokabideek, denetan jatorrenak izanik ere, sozial-aipamena galdu dute; eta fama hau zabaldu gure artean: «hika-ko molde hori itsusia, zabarra, arlotea da. Utikan!». Askok entzun izan dugu hau gure etxeetan.

Kaletarrak bezela mintzatzea «dotoreago»tzat horrela hartuta, hika-ko formak alde batera utziak izan dira berariaz burgesen artean; eta Euskal Herriko zenbait eskualdetan erdi galdurik daude.

2.—Hizkuntza guzietan ba dago errazenerako joera eskuar bat. Euskeran ere gauza bera.

Hika-ko formak bestetik gaiñerakoak baiño «zaillago» diran ezkerero, uztearen alde daude batzuk.

Euskaldun hutsen artean, ordea, eta edozein hiztun taldetan, forma horiek bizi-bizirik daude zaillak izan arren; gehien batez hizkuntzak ez baitira «zaillak» kanpotarrentzat baizik. Eta baztertzeko barne-arrazoin funtsezkorik ez dago, gaur gaurkoz bederen.

Eraztu nahi hori onar baledi, bidezkoago litzake berriago diran beste tratamenduen arteko bat alde bat uztea, hika-ko jator hau baiño.

Berorika-koa, esate baterako, hirugarren pertsonakoa da, espaiñerazko «usted» dalakotik xuxen xuxen hartua izan dalako. Iparraldeko Euskal Herrian ez da ezaguna.

Gaurko erdi-*zuka*-koa ere (ez baita egiazko *zuka* osoa, ondoko le-roetan agiriko denez), berriki arte gaurko «zuek», «vos», «vous», erderatik etorri berria da. Aditzaren azterketak garbi erakusten du *zu* plurala dala funtsez (frantserazko «vous» eta ingleserazko «you» bezela). Ez dezagun ahantz, hain zuzen, literaturan ba ditugula horren frogabide batzuk: «entzun zazu, kristauok».

HIZKUNTZAREN JOERAREN KONTRAKO MODU BERRIEZ

Orain dala urte batzuk batez ere, egia horietaz euskaltzaleak jabeturik, *hika* (eta *zuka* osoaren) aldeko mogimendu zabal bat sortu da Euskal Herrian Literaturaren bidez. Baiña batzuk behar bezin sakonki problema ez ezaguturik, sekulan esan ez diran formak idazten hasi dira, hizkuntzaren bidetik baztertuz. Esate baterako:

etorri *dukala* esan dik
joan *dukan* gizona harrapatu ditek
nor erori *duk* hire ustez?

Halere hiru esaera horiek, euskeraren eremu eta mende guzietan (dokumentuen bidez froga diteke), hunela esan dira euskeraz:

etorri *dala* esan dik
joan *dan* gizona harrapatu ditek
nor erori *da* hire ustez?

hika mintzatuagatik ere, ez baitira forma aldatuak kasu guzietan erabiltzen.

Hori erakutsiko dugu ondoko lerroetan, Euskal Herriko euskalki guzietako adibide batzuk aukeratuz.

Euskera idatziaren batasuna behar, eta nahi dugun ezkerero, dudarik ez da: hizkuntzaren legeak errespetatzera joan behar dugu. Eta errespeta ahal izateko, bistan da, ezagutu eta ezagutarazi egin behar dira aitzīñetik. Hau da gure asmoa.

Hika-ri buruz esango dugunak, egiazko *zuka*-ri buruz ere balio du. Eta batzuk besterik uste izan arren, egiazko *zuka* galduago dago *hika* baiño (berriz ere Xuberoan eta Baxenabarren ezik). Azkue'k, eta beste zenbait euskaltzalek ere, *zuka* oso horri eusteko eskatu dute:

joan naiz	=	joan <i>nauzu</i>
ekarri dut	=	ekarri <i>dizut</i>
etorri dira	=	etorri <i>dituzu</i>
joan nintzan	=	joan <i>ninduzun</i>
esan nion	=	esan <i>niozun</i>

Gure itzal guzia merezi du modu horrek; eta geure aldetik ere ezagutarazten saiatuko gera gure huntan ere.

Euskal herriak eta idazleek azken hitza.

AZTERKETAK ERAKUSTEN DUENA

1. *Bigarren pertsonetan*

Tratamendua *beti* nagusi: *hika* ari bagera, *hika*-ko formak behar dira kasu guzietan; *zuka* ari bagera, *zuka*-ko formak beti.

Adibidez:

Hika.—etorri *haizela* esan ditek (edo diate)
nora joan *hintzan* atzo?
eror *haitekeala* esan diat (edo derauat)
erori *hintzan* ezkerero
hori esan *baitik* hiri aitak
sal *dezakekan* baserri hori
heuk ekarri *baitiok* liburua.

Zuka.—etorri *zerala* esan dizute
 nora joan *ziñan* atzo?
 eror *zaitzkeala* esan dizut (edo derautzut)
 erori *ziñan* ezkeru
 hori esan *baitizu* zuri aitak
 sal *dezakezun* baserri hori
 zeuk ekarri *baitiozu* liburua.

Aurrizki (prefijo) rik izan ala ez izan, atzizkirik izan ala ez izan, *beti* beraz, tratamenduak agintzen.

—Pluralean (*zuek*) ez dago aldakuntzarik: zerate, duzute, zenioten, zaitzetekeen, eta abar.

2. *Lehenengo eta hirugarren pertsonetan*

Zenbait kasutan (eta ez beti, beraz), aldatu egiten dira aditz-jokoak, eta tratamenduaren arabera jartzen:

A) *Intransitibo:*

Aditza intransitibo deritzana baldin bada, tratamenduaren *egille-atzizkia* erasten zaio:

etorri naiz = etorri *nauk* (ia-ia: *hik* etorri nauk)
 etorri *naun*
 etorri *nauzu* (ia-ia: *zuk* etorri nauzu)

etorri da = etorri *duk*
 etorri *dun*
 etorri *duzu*

etorri gera = etorri *gaituk*
 etorri *gaitun*
 etorri *gaituzu*

etorri dira = etorri *dituk*
 etorri *ditun*
 etorri *dituzu*

Aditzaren egintzak *hik* (edo *zuk*) egiña dirudi. Intransitiboak transitibo-itxura hartzen du.

—«Nor-nori» duten aditz-jokoetan, gauza bera egiten da: tratamenduaren *egille-atzizkia* erantsi:

erori zait = erori *zaidak*
 erori *zaidan*
 erori *zaidazu*

Aditzaren egintzak, berriz ere, *hik* (edo *zuk*) egiña dirudi. Intransitiboak transitibo-itxura hartzen du.

Baxenabarreraz, zenbait tokitan, nahastu egiten dira forma batzuk: dait (tr.) = zaidak (tr. eta intr.).

B) *Transitibo*:

Tratamenduaren *hartzaille*-atzizkia erasten zaio berboari:

ekarri dut = ekarri *diat* (ia-ia *hiri* ekarri diat)

ekarri *diñat*

ekarri *dizut*

ekarri du = ekarri *dik*

ekarri *din*

ekarri *dizu*

ekarri dugu = ekarri *diagu*

ekarri *diñagu*

ekarri *dizugu*

ekarri dute = ekarri *diate* (edo *ditek*)

ekarri *diñate* (edo *diten*)

ekarri *dizute*

Aditzaren egintzak *hiri* (edo *zuri*) egiña dirudi.

Hain zuzen ere euskalki batzutan forma batzuk nahastu egin dira: hau esan *diat*; eta hiri esan *diat* (G)

Baiña beste euskalkitan ez:

hau esan *diat*; eta hiri esan *derauat* (L).

Batasunari buruz ari gerala, ba dugu hor ere beste problema txiki bat. On izango da euskaltzaleak aztertzen hastea: gipuzkeraren joera onartu (bide «erraza»); ala gaiñerako euskalkien joera onartu (zorrozta-sun haundiago, baiña bide «zaillago» ere, sentidu batera bederen).

—«Nor-nori-nork» duten aditz-jokoetan, gauza bera egiten da: tratamenduaren *hartzaille*-atzizkiak erantsi:

ekarri diot = ekarri *dioat* (edo *zioat*)

ekarri *dionat* (edo *zionat*)

ekarri *diozut*

ekarri nien = ekarri *nieran*

ekarri *nienan*

ekarri *niezun*

ez *baitakit* nor dan (ez baitzekiat, baitekiñat, baitakizut)
harat agertu *bainintzan* (ez baininduan, bainindunan, bainin-
duzun)

ba eta ez ez dira aurrizki.

B2 — ADITZAK EDOZEIN ATZIZKI DARAMANEAN:

hori esan *dudalako* (ez diadalako, t.a.)
adiskidea etorri ote *dan* ez zekiat
nor dan ez *dakidalakoan*
hara agertu *nintzala*.

B3 — GALDERETAN:

nork esan *du* hori?
garaiz iritsi al *naiz*?
ikusi ote *du* berak hori?

B4 — ADITZAK ERRELATIBOA DARAMANEAN:

etorri *dan* gizona (ez etorri dukan gizona, t.a.)
erosi *dugun* etxea
ekarri *zuten* ogia.

ARGIBIDE BATZUK EUSKALKI GUZIETAN

Erronkarieraz (R) = Mendigatxa.

- orrastatan (orrastutzen) *baita* naroago, ez duk yire bizia izanen kain luze.
- nola ez *baitu* kanbat ekusten, ezkapatan yazanean, ez yai ekusen lasterrari emoiten.
- ni ebiltan *bainaz* erri anitxetarik, anitx ekusten dian.
- korregatik biar dadan erran zer *den* emaztekoa.
- atziriten gutuk amabi urratsez kantik, arrankaten gutuk beinkoan; eta lein eltan *grena* (lehenik heltzen gerana) yiri tokatra, eitzen gutuk libre.

Xibereraz (S):

Berterretxe'ren kantoretik:

- habil, eta so egin ezan gizonik *denez* agiri.
- hire semea bizi *bada*? Mauli'ala dün joanik.

Candau'renetik, «Le Réveil Basque», 1869:

- zertako hainbeste malezia dük enetako; zeren M. Berdolién altea etxekitzen *düdalakoz?*
- Hura *dela* kausa kexü hiz.
- Hi eregetiarra bekaitz behaiz, zeren Franzia trionfan juiten *delakoz*; zeren nahi baihüke lenen bezala errege baten esküpean izan *gitin*.

Musde Sarri'ren olerki famatutik:

- Baiuna'ra jiten *badira*, Agramunt'ek hillen tik.
- Habil, erron kapitainari, jin *dadin* afaitera.

Baxenabarreraz (BN) = B. Etxepare'netik 1545:

- horrat apart hadi,
nor uste duk *nizala?*
horlako bat ez duk uste
nik ikusi *dudala?*

Lapurteraz (L).

Atsular'enetik:

- Zer mintzo haiz? Zer darabillak? Egin dite hireak; gaur eskatuko zaizkik eure arimaren, gaur gorputzetik eramanen deraue. Norentzat izanen *dira?*
- Horrela duk bada munduko erokeria ere. Uste *baitute* bekato-rek bekatu anitzekin, karga pisuarekin hobeki jaikiko *direla* arinarekin baiño.
- Zeha hintzaket, baldin hasarre ez *banintz*.

Leizarraga'renetik:

- hire anaie etorri izan duk, eta hil ukan dik hire aitak aretze gizen bat; zeren osorik rezebitu *duen*.
- hanbat urte dik zerbitzatzen haudala; eta egundano hire manurik ez diat iragan, eta egundano pitina bat ez draudak eman neure adiskidekin atsegin hartzeko. Baiña hire seme haur, zeinak iretsi ukan *baitu* hire onhasun guzia putekin, etorri izan *denean* hil ukan draukak huni aretze gizena.
- Atsegin hartu behar *zuan* (behar «zan», beraz), eta alege-ratu, zeren hire anaie haur hil *baitzen* eta biztu *baita*; galdu *baitzen*, eta eriden *baita*.

Nafarreraz (AN, BN): Manezaundi'renetik:

- hik ere bide bera deramak; ez *dea* hala, Manez?
- abiatu nuk hunat, hea eskale hobeagorik gertatzen *den*.
- oraiko egunetan ustegabe gertatzen ez *denik* ez duk.
- nik uste nikan hunat jiten *diren* amerikanoek bezala, moltsa okitua hiniela.
- ikuskik han gelditzen *direnak*.
- hire ezpainetarik entzun *ditudanekin*, ba diat aski eremu madarikatu hek higuintzeko bizi *nizeno*.

Gipuzkeraz (G). Bi bertsolari aipatuko ditugu:

Xenpelar'renetik:

- kunpli tzik hire ordenak,
ez dik kalteko nor *denak*,
bestela parra egingo ditek
begira *daudenak*.
Hik nun daukazkik kemenak
menderatzeko gaillenak?
Hezur igarrak hautsitzen dizkik
indarra duenak.

Txirrita'renetik:

- baiñan esperantzetan natxiok oraindik,
alkar joko *degula* nundik edo handik.
- hi bizirik haizela
etortzen *banaiz* ni.
- hire ardiak nere sor oan
egin *dituzten* kalteak,
punta berriak moztu zizkatek,
eman zizkatek korteak.

Bizkaieraz (B): Azkue'renetik:

- ba dakik *datorren* zapatuan gurean ze egun *dan*.
- Etxezarreta'ko harako Anton ez dakin, orain bost urte hil *ebena?* Neuk hil ñonan.
- etxean ez *badago*, neu nok Doistu'ko sakristau hori.
- bizirik itxi banagik, gantzugailu hori zezaz eta zelan egiten *dan* irakatsiko dauat.

Jarraipide segur bat nahi duten euskaltzaleei zin-ziniez gomendatzen diegu Jatsu'ko *Jean Etxepare* zanaren «Mendekoste Gereziak» liburuska. 64 gn. horrialdetik aurrera hor irakur dezateke eskutitz-mordo bat, danak hika idatziak, eta danak puntu huntaz bildurrik gabe eredutzat hartze-koak.

Txillardegí.